

MAHAI NEGOZIATZAILEA 2022/05/06**ESTABILIZAZIO PROZESUAK: LAN ESKAINTZA PUBLIKOAK**

Hezkuntza Sailak lanpostu publikoen eskaintzara aurkeztu zituen kopuruak aldatu ditu. Lehenengo eskaintzaren aurrean LAB irakaskuntzatik salatu genuen kopuruak ez baitziren nahikoak eta ez baitziren baliagarriak langileak lanpostuetan egonkortzeko. Hauek dira ostiralean mahaian aurkeztu eta publiko egin zituzten kopuruak:

	Merezimendu lehiaketa	Oposizio-lehiaketa "ez baztertzaila"	Oposizio-lehiaketa arrunta
Maisu-maistrak	714	198	1.132
Bigarren Hezkuntzako irakasleak	1603	372	802
Sektore berezietako espezialistak	149	14	18
Lanbide-heziketako irakasle teknikoak	146	116	-
Hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleak	44	-	-
Musika eta arte eszenikoetako irakasleak	23	3	-
Arte plastikoetako eta diseinuko irakasleak	18	7	6
Guztira	2.697	710	1.958

Eskaintza berrian ikusten denez, 1.000 lanpostu gehiago izango dira deituak (5.365 lanpostu eskainiz 4.357 beharrean), 2022ko eskaintzari dagozkionak. Merezimendu lehiaketari dagokionez, lehen eskaintzan zeuden 1.798 lanpostutatik 2.697 lanpostutara pasa da.



Eskaintza berriaren aurrean, LABetik kopuruak aztertu eta ezkutuko lanpostu guztiak eskaintzara gehitzeko lanean jarraituko dugu. Aurreko astean ekin genion mobilizazioen bideari jarraituz, langileontzat eta eskolentzat egokiak diren kopuruak zehaztu arte:

<https://youtu.be/mF79H7Y0pwY>

LABetik lanean eta borrokan jarraituko dugu estabilizazio prozesuen bitartez (merezimendu lehiaketa eta oposizio-lehiaketa “ez baztertzaila”) behin-behineko langileen eskubide aitortza erreal lortzeko. Hainbat urtetan iruzurrean egondako langile guztien aitortza lortzeko; horretarako, deialdietako oinarrien negoziazioa funtsezkoa deritzogu.

LABek arreta jarriko du irakasle funtzionarioen lan-antzinatasunaren bermean, lanbide heziketa teknikoko irakasleen kontsolidaziorako behin-betiko irtenbidean eta bestelako merituak balioesteko irizpideetan. Era berean, lanpostu guztiak euskarazkoak izan daitezen hartu beharreko neurriak proposatuko ditu (baita lanbide heziketako lanpostuetan ere).

Azkenik, ezaguna da prozedura guztiak 2024ko abenduaren 31rako amaituta egon behar direla. Horregatik, Hezkuntza Sailari dei egiten diogu sindikatuokin negoziatzeko eta argitzeko: prozeduren egutegiak, espezialitatekako lanpostu kopuruak, oposizio-lehiaketetako gaitegiak euskaraz moldatuta, zein bezalako gaiak.

UZTAILEKO LAN EGUTEGIA

Azken egunetan bolo-bolo dabilen esleipenen egutegiaren inguruan, LABetik desadostasuna helarazi genion Hezkuntza Sailari. Izan ere, nahiz eta sindikatuan egutegi proposamenik jaso ez, berau onartezina iruditzen zaigu. Hori dela eta, Sailari dei egin genion egutegi berria gurekin negoziatzeko. Ez dugu langileon baldintzetan atzera pausurik onartuko eta.

LIZENTZIA ETA BAIMENEN NEGOZIAZIOA

Lizentzia eta baimenen inguruko erabaki hartzea 15 egunez atzeratu da. Aurreko *infoan* adierazi genuen bezala, LABentzat lehentasuna du 2021ko ekainaren 30ean Hezkuntza Sailak aldebakarrez argitaratu zuen eszedentzia eta lanaldi-murrizketen agindua bertan behera utzi eta zaintza-lanetan ari diren langileentzat zein ordezkoeentzat orekatuagoa izango den agindu berria martxan jartzea. Baita 2010etik zaharkituta dauden bestelako lizentzia eta baimenak berritzea ere.

LABen dokumentua sinatzeko nahikoa arrazoi ikusten badugu ere, aurrera egin dezan ezinbestekoa da guretzako langileen ordezkartzaren gehiengoak honekin bat egitea.

Euskal Herrian, 2022ko maiatzaren 9an